

Nabigazioa

Hasiera

- Nire hasiera
- Gunearen orriak
- Nire profila
- ▼ Oraingo ikastaroa
 - ▼ **BogaDemoa**
 - Partaideak
 - Orokorra
 - Nire ikastaroak

Ezarpenak

- Nire profilaren ezarpenak

Zer da BOGA? ¿Qué es BOGA? What is BOGA? Qu'est-ce que BOGA?

Euskara Internet bidez ikasteko sistema multimedia da BOGA. On-line funtzionatzen du eta euskalduntze prozesuaren maila guztiak hartzen ditu lau ikastarotan banatuta.

Ikastaro hauek euskallegi edo euskal etxeetako irakasleek tutorizatzen dituzte.

Ikastaro bakoitzean 3 multzo ikusiko dituzu, bakoitza 5 estrato edo unitatez osatua, beraz, 15 estrato guztira.

Estrato hauetako bakoitzak 10 saio ditu. Saioak, ohiko klaseak bezala antolatuta dira, beraietan irakaslearen azalpenak, helburuen aurkezpenak, aurkezpen horiek egiteko eta helburuak lortzeko elkarrizketak dira oinarri. Elkarrizketa horiek guztiak istorio bat osatzen dute eta berari lotutako ariketa mordoak duzue egiteko. Batzuek beste 30 ariketa saio bakoitzean.

Ariketa tipologia oso zabala da: hutsuneak bete, bikoteak osatu, arrastatu, aukera anitzeko galderak, irudia eta testua lotu, e. a.

Saioak egin ahal, estratoko testa aktibatuko zaizu eta gainditzen baduzu, hurrengo estratora pasatzeko aukera izango duzue, bestela, birpasako saioa egin beharko duzue.

Pelikula eta ariketez gain, programak beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, adibidez:

- laguntza
- gramatika kontsultak
- programazioa
- mezularia: irakaslearekin zein ikaskideekin harremanetan jartzeko, materialak trukatzeko...
- hiztegia: gaztelania-euskara-gaztelania.

Zer behar dut erabiltzeko?

BOGA erabiltzeko nahikoa duzue Internet-erako konexioa eta www.ikasten.ikasbil.net atarian erabiltzaile kontua sortzea.

Bestealde, BOGA ikastaro zehatz batean **matrikulatu** behar duzue. Horretarako ikastaro horiek eskaintzen dituzten euskallegi nahiz euskal etxe batekin harremanetan jarri behar duzue. Atari honetan <http://www.ikasbil.net/> duzue zentro hauen zerrenda eta bertako arduradunekin harremanetan jartzeko aukera.

Beraz, jar zaitez harremanetan gustuko duzun euskallegi edo euskal etxearekin.

Ordenagailua:

Erabiltzen duzun ordenagailuak, gutxienez, honako ezaugarriak bete behar ditu:

- Flash player: <http://get.adobe.com/flash>
- Internet konexioa: adsl edo antzekoa
- Nabigatzaile hauetako bat:
 - **firefox** nabigatzailearen azken bertsioa.
 - **chrome** nabigatzailearen azken bertsioa.

Tabletzentzako oharra: Bogako edukiak ez daude ukimen-interfazeetara egokituta. Gerta daitezke ariketa batzuk ezin egin ahal izatea.



HEOK	BOGA
	1.a
	1.b
	1.c
1. maila	2.a
	2.b
	2.c
	3.a
2. maila	3.b
	3.c
	4.a
3. maila	4.b
	4.c